

BIZKAIERIA TA POLITIKARIAK

Joan dan urterillaren 22n. egunean, Deia gure egunkarian idaz-lan labur bat dator idazpurua au dala (gastele-raz, jakiña): Bizkai'ko euskerea.

Idaz-lan labur orren barruan jakingarriak eta aztergarriak diran gai batzuk datoz. Ikasi eta aztertu daiguzan.

Errigintzarako iru alderdiak euskereari buruz dabezan diru-jokabideak beteteko, gai eztabaidagarri bat Bizkai'ko euskalkia izan da. Ez da gitxi mailla orretan arazo au agertzea bera be, eskertzeko gauzea da.

Eztabaida orretan PP'ko abosdunak, esango ebana gauza arrigarria zala jakin arren, auxe esan eban: Bizkai'ko euskereari arlo guztietan diru-laguntza geiago emon bear jakola. Gutzat arrigarri PP gure alde egotea da. Ez ete datoz autarkien billa? Oraintsu berba egin gendun Gasteiz'en Rabanera Aldun Nagusiagaz eta antzeko berbak esan euskuzan.

Eta zergaitik esakatzen eban PP'k Bizkai'ko euskerearen alderako laguntza ori? Erantzuna gutzat jakingarria da: ONU ren txosten baten Bizkaieria galtzeko arriskuan dagoala agertzen dalako. Nik ez nekian ONU k berak be gure arrisku aundi onen barriak jakin eta agertu ebazenik. Asko dira munduan gure bidea ontzat artzen dabenak, Bizkai'ko euskerearen alde dagozanak!

Baiña PP'ren eritxiak ez eban onartzerik izan. EAJ, EA eta EH k, diñoenez aurten Bizkaierearen alde egingo dan alegiña naikoa litzakena baiño be aundiagoa ei da.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Zertarako bear dogu ba, laguntza, bai EUSKERAZALEAK eta bai EUSKERAZAINTZA'k?

Elburu bitarako batez be: Lenengo ekintzak beteteko: Aldizkariak eta liburuak argitaratzeko, euskerearen egunak errietan egin, omenaldiak bide dirala errietan euskeraz egiteko zaletasuna indartu, sariketak eta abar. Orretarako zerbait emoten dauskue, Udalak, Aldundiak eta Jaurlaritzak, baiña guztiak batera dirala ez dira eltzen urteko iru milloira. Aurten geiago izango dalakoan gagoz.

Baiña beste arlo baten be bear dogu laguntza: Alkarteak eta Erri-Akademiak curen eguneroko zeregiñak beteteko: Joan-etorriak, idazgo lanak, lanerako gaiak, etxea, urrutuzkiña... Ala lan egin eta gaiñera eralketak be geuk ordaintzea eskatzen jaku? Dirurik ez ba'dago ori be egingo dogu, baiña guztientzat izan daitela bardin eta ez Euskaltzaindiari eundak milloiak, langilleak ordaintzeko beste, eta guri ezer be ez. Eta Euskaltzaindia ez dago Bizkai'ko euskerearen alde. Eurentzat Bizkai'ko euskerea gure izkuntzaren gorputzak irauteko galdu bear dauan besoa baiño ez da. Orrei bai emoten jake laguntza ugari! Orrelan aterako dogu aurrera gure bizkaieria!

Jazoak jazo izan arren, ez uste izan PP'ra joango garanik! Aleginduko gara Bizkaia'n euskeraz egiten eta Bizkai'ko euskerea egiten jarraitzeko. Ez aitzu: Bizkaieria galtzen ba'da, emen ez da batua egingo. Olako aldakuntzak gaztelerara garoaz. Ori da, gorputza gaizkatzeko besoa ebagitea.

Olazar Martin'ek